

BEREZKO SEGMENTUAK

Gaur egun, gero eta jende gehiagok egiten du kirola, geroz eta pertsona gehiago dago honetaz kontzientziatuta, beraz, kirola egitea gero eta entretenigarriagoa izateko aurikular hauek sortu ditugu. Gure ustez, musikak kirola egitea animatzen du, gogo gehiago ematen du kirola egitea eta motibatu egiten gaitu. Batzuetan, ez dugu gogoia kirola egiteko, baina musika baldin baduzue, seguruenen gustorago egingo duzuela.



Aurikular hauek, gehienbat kirola egiten duten pertsonentzat eginda daude. Gainera, trenean ala autobusean erabiltzeko izan daiteke, bidai luze bat egiterakoan ez aspertzeko. Baita ikasteko ere, pertsona batzuk gehiago kontzentratzen dira musikarekin, eta ideia ona izan daiteke, erosoagoak direlako edo kaletikan ibiltzeko, bakarrik zaudenean, benetako proposamena kirolarientzako izan arren. Kirola egitean, adibidez, aurikular normalak, hau da, kablea dutenak desatseginak izan daitezke, kirola egitean mugitu egiten direlako, beraz, gero eta kable eta tresna gutxiago edukitzerakoan, gero eta atseginagoak izango dira. Izan ere, kableak dituzten aurikularrak bere momentuan oso onak izan ziren, baina gaur egun egin diren aurrerapenekin, kableak ez dituztenak askoz hobetoagoak dira, eta mobila sinean eramatearen beharrik gabe askoz erosoagoa da.

Aurikular hauek pertsona guztientzako eginak daude, gehienbat nerabeentzako, gaur egun geroz eta nerabe gehiagok egiten dutelako kirola, baino hori hobetu nahi dugu. Gaur egun, geroz eta nerabe gehiagok egiten dute kirola, baino oraindik badaude batzuk ezetz, beraz jende hau motibatuzeko eginda daude gehienbat, eta modu erosoagoan ibiltzeko. Baita ere, jende helduarentzat. Helduek ere modu erosoagoan egin dezakete kirola, beraiantzat erosoagoa delako, eta aiton-amonentzat ere, hauek zailtasun gehiago dituztelako honelako aparatuak erabiltzeko, beraz beraiengan ere pentsatu dugu.



Produktu hau eskuragarri egongo da munduko gune guztietan, hasiera batean gure ingurunean saltzen hasiko gara, hau da, Euskal Herrian eta agian Espainia mailan, baina ikusten badugu gure proiektua ondo saltzen ari dela, izan daiteke, mundu osoan zehar saltzen hastea.

Aurikularrak, ekonomikoki erdi-mailako pertsonentzat eginda egongo dira, izan ere, ez dira oso merkeak, baina

kalitatea onekoak dira, beraz inbertsio ona izan daitekeela uste dugu, denbora handia iraungo dutelako eta kalitatea ez delako galduko.